

Bainu osasungarria hartzeko aholkuak hondartzetan eta zingiretan Gomendioak:

- **Errespetatu seinaleztapenak (banderak) eta hondartza zaintzen dutenen aholkuak.** Gogoratu hor daudela gure segurtasunaren arduraren dutelako.
- Hondartza batzuetan gomendagarria izan daiteke **txankletak** erabiltzea, bainua hartzen denean ere, ebakiak edo ziztadak saihesteko.
- **Ez konpartitu eskuoihalik edo erabilera pertsonaleko bestelako objekturik.**
- Hartu eguzkia pixkanaka-pixkanaka eta larruazal-motaren araberako babesa duen eguzkitako krema jar ezazu. Denbora gehiegi eguzkitan egonez gero, erredura larriak gerta daitezke.
- **Neska-mutikoekin kontu handiz ibili: haien burua estali, eguzkitako krema ugari eman eta ur asko edanarazi deshidrataziorik gerta ez dadin.**
- Erabili **dutxa bainua hartu ondoren.** Zure larruazala fresko-fresko geratuko da eta bertan itsatsita gera zitezkeen hondakinak kendu egingo dituzu.
- Ez bota janari-hondarik, latarik, hondakinik eta zigarro-mutxikinik. Erabili paperontzi edo edukiontzi egokia. **Alde egiterakoan, hondartza aurkitu nahiko zenukeen moduan utzi.** Horrela jokatzen badugu, paisaia ez dugu hondatuko eta gune horiek garbi egongo dira.



EAKo UDALA